

Erre ke erre

JEXUXMARI ZALAKAIN



GAUZA asko jarri ditu martxan Euskal Herriak propio. Berak hasi, kudeatu eta eraman. Berak eta berarentzat *erre ke erre* martxan. Horietatik bat, ikastola da. Egunotan asaldatuta gauza ikastolak, kanpotik eta barnetik tiranduran bizi baita. Oso oker ez banago hor ez da diskutitzen halako udalerrri bateko eskolak aldameneko ikastolak baino hobeto funtzionatzaren duenentz. Izan daiteke. Eta alderantziz ere ba da, denetatik baitago. Diskutitzen dena da, herriak berak gauzatutako sare publiko bat (ikastola), administrazioak (kasu honetan espainolak) sortutako eskola publikoa bihurtu behar duena ala ez.

Ostegunean erabakiko da. Puntutxo batek kezkatzen nau ni, eta Unibertsitatean ikusitako ikusita, gero eta argiago dakust. Labur esanda, espainola berez eskola publikoaren proiektua da: funtzionariak, ez dakit. Euskalduna eta Euskal Herriari dagokion bakarra, berez ikastola da; bertoko kideak, auskalo!

Eman dezagun eskola publikotik ere *erre-bolta* daitekeela gure eskola nazionala eraikitzeko. Premia hori ikusten duenak ez dakit zergatik eskatzen dion ikastolako kideari, bere eremura etor dadin. Zertarako joan-etorriko bidaia hori? Galdetu Unibertsitateko funtzionari abertzale eta euskaltzaleei zein zaila eta mingarria den eremu publiko horretatik euskal proiektua mamitzera abiatzea. Eremu horretan ari denak, eta euskal proiektuan sinisten duenak bere buruaren kontra aritu behar du, bere baitan egin behar du lehenik urradura.

Hobe kanpoan geratzea, hobe funtzionari ez izatea, hobe ikastolan segitzea Euskal Herriaren Irakaskuntza-sistema euskalduna eta nazionala, hots *eskola publiko berria* berez espainola ez den eremutik garatzen segitzeko. Ikastolako kideek guttienez beren eskuetan daukate proiektua, urtetako historiak eta izerdiak onduta. Guk ez daukagu hori. Hemen egiteko dago dena. Baina *erre ke erre* Euskal Unibertsitatearen ere martxan dago. Ikasleek gogora ekarri berri digute egunotan. Ikastolak ezin du hutsik egin. *Erre ke erre*.

Nafarkaria

MIKEL BUJANDA



LAUDORIO-TAN bada molde bat, ustela, hau edo hura egiteko behar den ahalegi-nean, egileen borondatean, asmoan, azpimarka egiten duena. Seinale izaten da nahia bai baina emaitza ez dela hain laudagarri. *Nafarkaria* ez du halako lausenguren beharrik: produktoa da ona. EGUNKARIAREN gehigarria egoki ari da betetzen bere funtzioa: hurbileko errealitatearen berri emanez, kazetaritza lanak kreaizkoekin proportzioan konbinatuz, beste bitartekariak behar hainbestean lantzen ez dituzten erreferentziak alorrei toki eginez. Ez da zero akatsekoa, bai ordea produkto giharretsua eta sendoa. (Azken alea ikusi besterik ez dago: *Epaltzaren* hautua, *Alonsoren* mintzoa, *Belaskoren* admonizioa, *Jeremiasen* jeneroa, *Zaldi Eroarena*, *Barandiaranen* eta honen *alter ego*en kronikak, elkarriketak eta erreportaiak. Pena da aurrekontuak zenbait urrezko lumen katxetak ordaintzeko adina ez ematea eta *Perurena* gipuzkoararak asaldatzan ibili behar izatea).

Sendoa, beraz, *Nafarkaria*. Eta gehigarri honen balio erantsia, sendagarria. Nahi bada, antidotoa, hedatuxeak diren bi gaitzen aurka. *Nafarkaria* da bat, zahar samarra, euskaldungoaren potentzia diren herrialdeekiko harremanetan nabarrikoarena egitera daraman joera: inor baino pintoreskoago, astapetroago. Bigarren gaitza, *nafarrerria* berria, bestizenez periferikoaren sindromea: euskaldungoaren potentziek aiantzita eta baztertuta utziak sentitzea. Biktimismoa du eritasun honen sintoma nagusia. Bada, bietarako erremedio paregabea da *Nafarkaria*: erakustea badela zer kontatua eta nork kontatua.

EL MUNDO

Hamletek baietz esan zuen bigarrenean

Hortaz, ba al dauka zentzurik Maastrichti buruz hitz egiten jarraitzeak kartara eratutako komunitatea —bi abiadurakoa izan beharrean hainbat abiadura desberdinetakoa ere badena— nagusitzen ari denean? Danimarkar eta britainiar kasuei etorkizunean kide izango diren Suedia, Finlandia, Austria eta Noruega-koak gehitu ahal zaizkie, horiek ekonomi eta politika batasun sendo baten alde egon beharrean, ekonomi truke askerako gune bat beste loturarik izango ez lukeen estatu batuen konfederazio bat nahiago baitute. Zer dela eta Brüsselaren fede aitormena Hitzarmenaren alde, are Frantzia eta Alemaniaren moduko latorrietan ere horren aurkako gizar-ter jarrerak nabarmenak direnean? Zergatik jarraitu, azkenik, diru batasunerako ardatz gisa arestiko ekaitzek agerian utzi du-


ten bezala ahula eta eraginkortasunik gabea den Sistema bati eusten?

EDITORIALA

EL PAIS

Elkartze susmagarriak

Narcis Serrak esan duenez Gobernuak ez du une honetan arazo hori aztergai baina, aldi berean, Jose Luis Corcuera Barne Arazoetarako ministroak indarreango legedia aplikatu egingo dela adierazi du. Horrek ez du baliogabetzen indultu hori lehenbailehen emateko Gobernuak interesik baduelako hipotesia. Ezbairik gabe, bere esku-menaren artean dago aukera hori, baina egungo egoeran indultu bat emateak berpiztu egingo litzuke Estatu aparatuko elementu zehatz batzuek kondenatuen jarduerarekin izan dezaketen adostasunaz eta beroriek Gobernu bera txantxatzeako mekanismo bat abian jarri ahal izanaz egon daitezkeen zalantzak. Elkarriketaz ulertezin hauek susmoei sus-



LURIE / ABC

mo berriak gehitzea besterik ez dute egiten.

EDITORIALA

egin

Baietza, zeren alde?

Sakoneko arazoa, nahiz eta danimarkarren hala-holako onespina Komunitatearentzat irrikatutako oxigeno baloi gisa puztu egin daitekeen, proiektua

geldiarazita egotea da. Errealitateanahitaezko bihurtzen ari da Maastrichteko aurrikuspenak etengabe birregokitu behar izatea baina, hala ere, hemen oraindik ere badaude hainbat indar politiko kasik konponbide magiko bat balira bezala horren plan-teamenduei helduta jarraitu nahi dutenak, horretarako Europako egoeraz eta sortzen ari diren zalantza ugarietz herri iritziak duen ezagutza urria erabiliz.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Euskal kulturaren desajustea

Prestigioa, borrokan oinarritutako gizar-tean, irabaztunak daroa berarekin. Honek esan nahi du bere azturak eta moldeak, era guztietakoak imitatuak izango direla. Mirespenak zeregin hori dauka, erdarazko *admiracion* delakoa, *mirar hacia*, batenganantz begiratzea da, harengandik ikasteko.

Japoniarrek printzipio hau berbaz berba aplikatu zuten, irabazleak ziren amerikarren azturak bereganatzen, eta euren hizkuntza ere ikasten. Ez dute horregatik kulturaz aldatu, zeren euren kulturaren barne-barnekoa baitzen garailearenganako makurtzea, eta mirespena.

Ingelesa, duda barik, horretara zabaldu da mundu osoan lehen *lingua franca* gisa.

Eta Euskal Herriak ere, neurri handian, irabazleei begira, bere azturak alde bat uzten dihardu abiada bizian. Prestigidunei begira.

Nik uste dut euskaltzaleok hortik ere konpreni dezakegula zer gertatzen den, nahiz eta gure irabazleak galtzaile suertatu ziren mun-

du politikan, inglesdunen faboretan. Hemen esperantzak, eta frustazioak. Zeren Espainiako kulturaren ere, Japoniako kulturaren bezala, ingeles moldeei egitea, ez baita kulturaz aldatzea.

Eta hemen euskal kultura, eta antropologia, nonbait zaharkitua gertatzen da. Iraintzeko ere ez dago termino egokirik! Asto edo artuakin lotzen da insultatua barren! Borroka asuntuetan, beraz, sebertate gutxi nabari da euskal kulturaren.

Beraz, beste adjetiboen artean, kultura desorientatua da euskalduna. Gehiengoa akulturatu delarik, ez baita egin euskalduna kultur berrira berea bilakatuz, eta bai aldatuz bestera, euskara utziz.

ROMAN GARMENDIA

Soraluze (Gipuzkoa)

Tolosa-Eugi eta pilotazaleak

Iskanbila ederra sortu du Eugiren portarak Bergarako pilotalekuan maiatzaren

8an. Agoizko mutilak eskatutako partida luzapenari uko egin zitzaion eta bere aldetik eginahalak egin eta gero eskuina kondizio hoberean edukitzeko, ezin zaio errendimendu baxuagatik ikuskizunik ezaren errua bota.

Belokiren aurka 11-19 tantotan zihoazenean gainditu egin zuen partida nahiz esku minberatuta edo pikauta eduki. Badakit desberdina dela mina partida hasieran edo bukaeran izatea.

Irakurri dut partida hasieran eta hirugarrenengo tantoan zihoazenean, injekzio edo infiltrazioa eskutan egin zitzaioela eta dena sendagile talde baten gomendioz. Halako jokaera onartezina da, kondizio horretan jokatzeko duena eskuak gehiago izurratzeko arriskuan jartzen delako.


Nere ustez hiru epaileri ahalmena eman behar zaie partida bat bertan behera geldiarazteko pilotari bat nabarmen ezinean aurkitzen denean. Adibidez boxeoan gertatzen den bezala.

JOKIN SARASOLA MARTINEZ

Donostia

GAIA JARRITA

Euskadiko Banku Publikoa



Euskal dirua ez da izango orain kanpokoentzako Kapitalakin ere aspaldi nahiz aurkitzen garen flako ekonomia, siderurgia gaizki omen daudelako diru kontuak leku denetan sortzen du hainbeste gako ez dagoenean ez dagolako ta denean dagolako.

ESTITXU AROZENA

Egunkaria

Batzarde Parkeidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJDren IKUSKATZEA BIDERATUA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: IÑAKI URIA

Zuzendariordea: LUZIEZ ETXEHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02

Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso

Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 /

Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) /

31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbo /

☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila.

/ 64105 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11